

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Imanole Legorburu Ibarguren

*Antzuola,
Gipuzkoa
(1962)*

Aurkibidea



Biografia



Lizarraga auzoko Ugartetorre baserrikoa. Antzuolako hika jasotzeko elkarrizketatu dugu, [Lierni](#) ahizparekin batera. Etxean jaso zuten hitanoa, baina gurasoek alabei sarritan zuka egiten zieten (semeari, berriz, normalean hika: [Pello Legorburu](#) ere elkarrizketatu dugu). Senideen artean hika egiten dute. Bi seme-alaba ditu eta zuka hitz egiten die normalean.

Zintak

ANT-132

- **Proiektua:** Antzuolan hika
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2022-03-11
- **Iraupena:** 87 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Hika egin ziezaioten eskatu zien etxekoei

- **Erref:** ANT-132/004
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:02:26. **Bukatu:** 00:06:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Anai-arreben artean hika egin izan dute. Gurasoek etxean alabei ez zieten hika egiten, semeari bakarrik; Liernik eskatu eta hala egiten hasi ziren. Amak ahizparekin hika egin izan du; aitaz ez dago hain seguru. Imanolek zuka egiten die seme-alabei gehiago; senarrarekin, oster, hika.

2. Nagusiagoei hika egitearren, errieta

- **Erref:** ANT-132/007
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:08:34. **Bukatu:** 00:10:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Osaba bati hika egin zion Liernik eta errieta egin zion osabak. Imanolek pasarte bat kontatzen du. Imanolen semeak osabei hika egitearren errietak jaso izan dituela dio.

3. Inguruko gehienekin hika

- **Erref:** ANT-132/008
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:10:04. **Bukatu:** 00:12:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Imanolek gaur egun hika edozeinekin egiten duela dio. Ume txikiekin ez zaie hika irtetzen. Liernik dio inguruko gehienekin hika egiten dutela. Zaharragoekin hika egiteak gorabeherak sortu izan dizkie.

4. Errespetua ez da hitanoarekin neurtzen

- **Erref:** ANT-132/009
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:12:14. **Bukatu:** 00:15:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Berdinetik berdiner daudela sentitzen dutenekin egiten dute hika. Lierniri semeak hika egiten dio, ikaste aldera, eta orain arte ez zen horrela egiten. Imanoleren semeak denei egiten die hika, zahar eta gazte. Hitanoak jarraituko badu, arauak malgutzea ondo ikusten dute. Errespetua ez dela hitanoarekin neurtzen uste dute.

5. Gazteetan mutilek gehiago darabilte hitanoa

- **Erref:** ANT-132/010
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:15:32. **Bukatu:** 00:17:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Gazteek mutilen artean hika egiten dute; neskei ere egiten diete baina toka. Orokorrean herrian etxeetan hika gutxi egiten dutela dio Imanolek. Nesken artean gutxi direla diote. Beren gurasoen garaian, denek hika egiten zutela diote.

6. Alabaren kuadrillan hitanoaren lanketa

- **Erref:** ANT-132/012
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:18:19. **Bukatu:** 00:20:50

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Emakumeei zuka egitea errespetu kontua izan zela diote. Beren inguruan, lehengo kontutzat dute. Alabaren kuadrilan neska batek lanketa egin zuen hitanoarekin eta orain denek egiten dute. Orokorrean mutilek gehiago egiten dutela diote.

7. Gertatzen zen semeari hi eta alabari zu egitea

- **Erref:** ANT-132/013
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:20:50. **Bukatu:** 00:23:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Emakumeek erdararako joera handiagoa izan zuten beren garaian. Gizonek inguru sozial handiagoa izaten zuten emakumeek baino. Gertatzen zen semeari hi egin eta alabari zu esatea, zuka finagotzat hartzen zelako.

8. Euskara, prestigio gutxikoa

- **Erref:** ANT-132/014
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:23:23. **Bukatu:** 00:26:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Euskara prestigio gutxiko kontua zen. Neskek gehiago egiten zuten erdaraz. "Kaxera" eta antzeko burlak egiten zizkieten baserritarrei, eta erdararako aldaketa egin zuten batzuek. Ohitura kontua dela dio Imanolek.

9. Hika konfiantza giroan

- **Erref:** ANT-132/020
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:36:35. **Bukatu:** 00:39:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Ezezagunekin gehienetan zuka egiten dute. Hikak konfiantzarekin zerikusia

duela diote. Liernik dio norbaiti hika egiteko batzuetan pentsatu egin behar izaten duela.

10. Ikasteko erabili egin behar, erabiltzeko entzun

- **Erref:** ANT-132/022
- **Iraupena:** 0:03:58. **Hasi:** 00:39:44. **Bukatu:** 00:43:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Neska gazteek hitanoa entzutea behar dute ikasi ahal izateko. Noka nesken ezaugarria dela eta horrek indartzen dituela uste du Liernik. Mutilei zuzentzen diete gaizki erabilitakoan; neskak erabiltzen hasi egin beharko liratekeela dio Imanolek.

11. Hitanoa berreskuratzeko ideiak

- **Erref:** ANT-132/023
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:43:42. **Bukatu:** 00:46:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hitano tailerra oso polita izan zela diote; adin askotariko jendea batu zen. Hiklaguna martxan jarri, zabalpena egin, jaso... Dena dagoela egiteko dio Liernik.

12. Hitanoa pixka bat modan

- **Erref:** ANT-132/025
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:46:40. **Bukatu:** 00:47:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hitanoa pixka bat modan dagoela diote eta euskaldun izatean beste maila bat gehiagotzat hartzen dutela gazteek. Etiket jaso ez duten asko daudela diote.

13. Umetan eskolan eta lagun artean erdaraz

- **Erref:** ANT-132/028
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:52:00. **Bukatu:** 00:55:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolan dena erdaraz ikasten zuten. Imanolek gogoan dauka erdaraz egiten zuela lagunartean eta bronka botatzen ziotela. Maistrarekin lehenengo errezatu egiten zuten, egun batean euskaraz eta hurrengoan gazteleraz. Maisu nafar bat aipatzen dute, euskaraz ezer ez zekiena.

14. Kafetegiak emakumeen bilgune

- **Erref:** ANT-132/034
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 01:02:52. **Bukatu:** 01:05:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Kafetegiak eta gozotegiak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Kafetegiak emakumeei tabernarako ohitura zabaldu dietela dio Imanolek. Txikiteroak gero eta gutxiago daudela dio.

15. Antzuolan erdara gehiagora

- **Erref:** ANT-132/038
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 01:09:42. **Bukatu:** 01:11:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Antzuolan nabarmena da gazteek gero eta gehiago erdaraz egiten dutela. Hasieran gogorra egin zitzaien. Kanpoko jendea etorri eta haien ohituren eragina izan dela uste dute. Eskolako irakasleak ez dira herrikoak.

16. Pakistandarrak euskaraz

- **Erref:** ANT-132/039
- **Iraupena:** 0:03:44. **Hasi:** 01:11:42. **Bukatu:** 01:15:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Pakistandar anai-arreba batzuk Antzuolara etorri ziren bizitzera eta euskaraz ikasi zuten erdaraz baino lehen. Jendea eta irakasleak asko inplikatu ziren. Gerora Londonera bizitzera joan baziren ere, euskaraz egiten jarraitzen dute, anai-arreben artean ere bai.

17. Antzuolarren harri fama

- **Erref:** ANT-132/040
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 01:15:26. **Bukatu:** 01:17:48

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

Antzuolarrek harro fama dutela dio Imanolek, osintxuarrei entzunda. Liernik dio antzuolarrek bergararreatatik esaten dutela harroak direla. Esaera baten zatia esaten du Liernik " ez dakit nun famia, bestian lania eta Antzuolan sedia".

18. Antzuolako hizkeraz

- **Erref:** ANT-132/041
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 01:17:48. **Bukatu:** 01:20:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Begarako hizkeraren antzekoa da Antzuolakoa. Ezberdintasun txiki batzuk aipatzen dituzte. Etxeko gazteek euskaraz zerbait gaizki esaten dutenean, honela esaten diete: "hala! Bergatarren moduan!". Auzotik auzora hizkera pixka bat aldatzen da.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com